ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA, AUSA-REN EDATEKO-UREN LABORATEGIRAKO Q-EXACTIVE FOCUS BEREIZMEN HANDIKO MASA-ESPEKTROMETROAREKIN BATERAGARRIA DEN KROMATOGRAFO IONIKO BATEN HORNIDURA, INSTALAZIOA, MARTXAN JARTZEA ETA MANTENUA KONTRATATZEKO XEDEAREKIN, PUBLIZITATE GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZ EGINGO DEN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

Donostia, 2023ko maiatzaren 5a

ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, AUSA-REN EDATEKO-UREN LABORATEGIRAKO Q-EXACTIVE FOCUS BEREIZMEN HANDIKO MASA-ESPEKTROMETROAREKIN BATERAGARRIA DEN KROMATOGRAFO IONIKO BATEN HORNIDURA, INSTALAZIOA, MARTXAN JARTZEA ETA MANTENUA KONTRATATZEKO XEDEAREKIN, PUBLIZITATE GABEKO PROZEDURA NEGOZIATUAREN BIDEZ EGINGO DEN LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honen xede da, Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SAren Edateko-uren Kalitate Kontrol laborategirako, Thermo Fisher Scientific markako, Q-exactive focus bereizmen handiko masa-espektrometroarekin bateragarria den kromatografo ioniko bat hornitzeko bete behar diren baldintzak zehaztea, Baldintza Teknikoen Agirian adierazten dena jarraituz.

Kontratuak jasotzen ditu baita ere ekipoaren instalazioa eta martxan jartzea.

Kontratuaren xedearen barruan sartzen da, halaber, hornitu beharreko ekipamenduaren bederatzi urteko mantentze-zerbitzua. Epe hori nahitaezko bermearen urtebeteko epeari gehituz gero, hamar urteko epea ematen digu, hornitu beharreko produktuaren bizitza baliagarriari dagokiona. Hori guztia SPKLren 29. artikuluko 4. ataleko hirugarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

Kontratua ez da loteetan banatzen, kontratuaren xedeak unitate funtzional bakar bat osatzen duelako eta esklusibotasun-arrazoiak direla-eta, lizitatzaile gonbidatuari baizik ezin zaio esleitu.

Kontratuaren ondorioz entregatuko den produktuaren fabrikazio-prozesua ikuskatzeko eta horren informazioa jasotzeko gaitasuna du AUSAk, eta erabiliko diren materialen azterketa, entsegu eta probak egiteko eska dezake edo berak egin ahal izango ditu; baita ere, kalitate kontrol sistemak finkatu eta hitzartutakoa zorrozki betetzeko behar diren xedapenak agintzeko, SPKLaren 303. Artikuluak xedatzen duenaren arabera.

Kontratu honen CPV kodea 38000000 da (Laborategiko ekipoa, optikoa eta doitasunekoa).

Helburu honekin idatzi den txostenean jasotzen denez (espedientean dagoena), kontratuaren xede den hornidura hau dagoeneko existitzen diren hornidura edo instalazioen berrezarpen bat da, eta hornitzailea aldatzeak ezaugarri ezberdinak dituzten materialak erostera derrigortuko luke organo kontratatzailea. Horrek, bateraezintasunak edo zailtasun teknikoak eragin ditzake.

Hori dela eta, espedientea publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bidez tramitatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 168.c) 2º artikuluan xedatzen denaren arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean SPKL). Horren ondorioz, Metrohm Hispania, SL enpresari bidali zaio gonbidapena.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO ORGANOA

Erakunde kontratatzailea Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, SA da (aurrerantzean, erakunde kontratatzailea edo AUSA).

Kontratazio organoa AUSAko Administrazio Kontseilua da.

3. ESLEIPEN PROZEDURA

Agiri honen 1 klausulan adierazten denaren arabera, kontratua publizitate gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleituko da, gonbidatua izan den enpresarekin negoziatu ondoren.

Negoziaketaren xedea izango da, agiri honetako 14 klausulan adierazten den alde ekonomikoa.

4. ALDAERAK

Ez dira onartuko.

5. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Kontratu izaera edukiko dute dokumentu hauek:

- Administrazio Baldintza Berezien Agiriak (ABBA).
- Baldintza Teknikoen Agiriak (BTA).
- Esleipendunak aurkezten duen eskaintzak.

Esleipendunak dokumentu horiek sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko ekitaldian, guztiak onartzen dituenaren froga gisa.

6. KONTRATUAREN EPEA ETA ONDASUNAK ENTREGATZEKO LEKUA

Kromatografoaren entrega eta instalazio epea hogeita bost (25) astekoa izango da, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori honako mugarri partzial hauek osatuko dute:

- hamazazpi aste, gehienez, hornidura entregatzeko, kontratua sinatzen denetik zenbatuz.

- zortzi aste ekipoa instalatu, martxan jarri eta BTAn adierazten diren eskakizun teknikoak betetzen direla egiaztatzeko, ekipoa entregatzen denetik zenbatuz.

Mantentze-zerbitzua 10 urtez emango da guztira, ekipoaren bizitza baliagarriari dagokiona. Mantentze-lanen lehen urtea nahitaezko bermearen barruan dago.

Ekipoa entregatuko da AUSAk EUTE Petritegin duen edateko-uren laborategian (Petritegi bidea, z/g, Astigarraga, Gipuzkoa).

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. OINARRIZKO LIZITAZIO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua eta gehienekoa 272.250 eurokoa da (BEZa barne).

Kontratuaren prezio horrek bilduko ditu kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak, zuzenak eta zeharkakoak eta balizko beste gastu batzuk ere.

Lizitatzaileek euren proposamen ekonomikoan sartuko dute kontratua gauzatzeko eskainitako prezioa, hornidurari dagokionez eta baita ere 9 urterako mantentze-zerbitzuari dagokionez. Prezio horiek ezin izango dute gainditu, inola ere, ondoren adierazten diren prezioak:

a) **Kromatografoaren hornidurari dagokion prezioa**: 136.125 € (BEZ barne)

b) **Mantenuaren guztizko prezioa (9 urte)**: 136.125 € (BEZ barne).

Mantenuaren lizitazioko oinarrizko aurrekontu hori zehazteko, ondorengo kostu zuzenak eta zeharkakoak eta balizko beste gastu batzuk hartu dira kontuan:

- Kostu zuzenak….. 112.500,00 €
- Subtotala…….... 112.500,00 €
- BEZa…… 23.625,00 €
- Totala…… 136.125,00 €

Kontratatzen duen erakundeak jasoko duen BEZa, proposamen ekonomikoaren partida independente batean adieraziko da.

Kontratuaren prezioak jasoko ditu kontratua gauzatzeko egin behar diren gastu guztiak, Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusten denaren arabera, eta ez da onartuko aurrerago beste gastu batzuen fakturazioa.

Kontratuaren prezioek jasoko dituzte hura gauzatzeko lanean jardungo duten langileen gastu guztiak (soldatak, Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko lansariak, gauez edo jaiegunetako lan orduak, baja- edo gaixotasun-ordezkapenak, istripuen banakako aseguruak, etab.); hala nola, zerga guztiak (BEZa kanpo), aseguruak, lizentziak, baimenak eta gainontzeko gastu orokorrak; entregatuko diren ondasunen entrega, desplazamendu eta garraioak eragindako gastuak; desmuntatze gastuak; existitzen diren ekipoak jabetzak adierazten duen lekura eramateak eragindako gastuak; produktuaren kalitatea kontrolatzeko probek eragindako gastuak; eta, azkenik, kontratistak kontratuaren xedea betetzeko erabiliko dituen baliabide, erremintak, ibilgailuak, ekipoak, tresnak, ekipo informatikoak eta gailuak.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 225.000 eurokoa da (BEZa kanpo), SPKLaren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatua.

Kontratuaren balio zenbatetsia honela banakatzen da: lizitazio honen xede den ekipamenduaren hornidurari dagokion balio zenbatetsia 112.500 eurokoa da (BEZ kanpo), eta mantentze-zerbitzuari dagokion balio zenbatetsia, ekipoaren 10 urtera arte, hau da, nahitaezko bermearen urtebeteko epea amaitzen denetik 9 urtetan, 112.500 eurokoa da (BEZa kanpo) (12.500 €/ urtea, BEZa kanpo).

Zehatzago esateko, kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko kontuan hartu da kontzeptu guztiengatik ordainduko den gehieneko balioa, BEZa kanpo.

8. PREZIOA ORDAINTZEA

Kontratuaren prezioa ordainduko da kontratistak dagokion faktura aurkeztu eta erakunde kontratatzaileak hura onartu eta gero.

Kontratistak faktura gehienez 30 egun naturaleko epean igorri beharko du, erakunde kontratatzaileak hornidura onartzen duenetik.

Entitate kontratatzaileak 30 egun naturaleko epean ordainduko du dagokion prezioa, entitate kontratatzaileak faktura onetsi edo onartzen duenetik hasita, baldin eta faktura adierazitako epean egin bada.

Ez da ordainduko agiri honen kontratu xedetik kanpo egindako hornidurarik, edo, hala badagokio, erakunde kontratugileak aldez aurretik eskatu ez duen hornidurarik.

Hornitutako ekipoaren mantentzeari dagokionez, urtebeteko bermealdia amaitu ondoren (epe hori zenbatzen hasiko da hornitutako ekipoa jaso eta martxan jartzeko

akta egiten den egunetik aurrera), prezioa urtero ordainduko da, kontratistak dagokion faktura aurkeztu ondoren.

Kontratistak urteko mantenuari dagokion faktura egin beharko du urte bakoitzeko lehenengo hilabetearen barruan eta erakunde kontratatzaileak 30 eguneko epean ordainduko du dagokion prezioa, faktura onartu ondoren.

9. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Prezioak ez dira berrikusiko.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratatzailearen kontratatzaile profilean argitaratuko dira:

- Kontratuaren esleipenaren iragarkia.
- Kontratuaren formalizazioaren iragarkia.
- SPKLaren 63. artikuluan adierazitako gainerako informazioa.

Erakunde kontratatzaileak, profil horretara sartzeko, honako web orri honetara jo beharko du: http://www.contratacion.euskadi.eus.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Esleipenduna behartuta egongo da behin betiko berme bat eratzera. Berme horren zenbatekoa esleipenaren zenbatekoaren (hornidura-prezioari eta 9 urteko mantentze-lanen kostuari dagokiona) % 5 izango da, BEZik gabe.

Eskaintzarik hoberena aurkezten duen lizitatzaileak egiaztatu beharko du adierazitako behin betiko bermea eratu izatea 10 egun balioduneko epean, Kontratazio Organoak ondorio horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Aipatutako behin betiko bermeak SPKLaren 110. artikuluan zerrendatutako kontzeptuei erantzungo die.

Bermea eratu ahal izango da SPKLaren 108. artikuluan aurreikusten diren modu ezberdinak erabiliz; eta ez da beharrezkoa izango hura Gordailu Kutxa Nagusian eratzea.

Abal moduan aurkeztuz gero, agiri honi **I. eranskin** gisa gehitutako ereduaren araberakoa egingo da.

Bermea eratu izana bitarteko elektronikoen bidez egiaztatu ahal izango da.

Bermearen gainean kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak gauzatzen badira, enpresa kontratistak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan. Haiek gauzatu eta hamabost egun naturaleko epea izango du. Hala egin ezean, kontratua deuseztatzeko arrazoia izango da.

Kontratuaren aldaketaren baten ondorioz haren prezioa aldatzen bada, kontratistak behin betiko bermea berregokitu egin beharko du, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Kontratistak hamabost egun naturaleko epea izango du bermea egokitzeko, aldaketa erabakia jakinarazten den datatik aurrera.

Bermea SPKLaren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme aldia igaro ondoren eta kontratistak kontratuko betebehar guztiak bete dituenean.

Bermea itzultzeko, erakunde kontratatzaileak aldeko txostena eman beharko du aurretiaz.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLaren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzekoa.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Lizitatzaile gonbidatuak jarduteko gaitasun osoa izan behar du eta kontratatzeko inolako debekurik ezingo du izan.

Lizitatzaile gonbidatuak, halaber, kontratuen xede diren zerbitzuak gauzatzeko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa gaikuntza izan beharko du.

Lizitatzaile gonbidatuak kontratuaren esleipendun izateko aukera izango du, baldin eta, kontratuko prestazioak berez dagozkion helburu, xede edo jarduera-esparrukoak direnean, bere estatutuen edo sorrerako arauen arabera.

Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko inguruabarrak —klausula honetan jasotakoak— bete egin beharko dira eskaintzak aurkezteko azken egunean eta iraun beharko dute kontratua gauzatzeko unean.

13. PROPOSAMENAK AURKEZTEA ETA DOKUMENTAZIOA

13.1. PROPOSAMENEN AURKEZPENA

- **Aurkezteko modua:** Proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren bidez: http://www.contratacion.euskadi.eus**.**

- **Aurkezteko epea:** Kontratatzailearen profilean argitaratzen den iragarkian adierazten dena.

- **Komunikazio eta jakinarazpen baliabideak:** SPKLaren hamabosgarren xedapen osagarrian adierazten denaren arabera, kontratazio-prozedura honetan egingo diren komunikazio eta jakinarazpenak Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren bidez egingo dira. Komunikazio edo jakinarazpen bat bidaltzen den guztietan, lizitatzaileak abisua jasoko du helburu honetarako adierazi duen bere helbide elektronikoan.

13.2. ARTXIBO ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Nahiz artxibo elektroniko bat izan, Gutun-azal Bakarra izenarekin adieraziko da.

Gutun-azalak ondoren adierazten diren agiriak jasoko ditu, eta bertan jasotzen diren agirien zerrenda zenbakitua izango du.

Gutun-azal Bakarra

Lizitatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Erantzukizunpeko adierazpena egokitu egingo da Kontrataziorako Europako Dokumentu Bakarraren (aurrerantzean, KEDB) formulariora. Berori **II. eranskin** gisa gehitu da eta jarraian adierazten denaren arabera beteko da:

   - KEDBa betetzeko, erregelamendu honen I. Eranskinean bildutako jarraibideak bete beharko dira: 2016/7 Betearazpen Erregelamendua (EB), 2016ko urtarrilaren 5ekoa, kontrataziorako Europako dokumentu bakarraren formularioa ezartzen duena.

   - KEDBko "IV. saila: Hautatzeko irizpideak" atal zehatzari dagokionez, lizitatzaileek soilik α atala bete behar dute: "Hautatzeko irizpide guztiei dagokien adierazpen globala".

2. Hornituko den ekipoaren ezaugarri teknikoen Memoria teknikoa, BTAn adierazten denaren arabera egingo dena. Horrez gain, eskaintzen duen ekipoaren mantenu zerbitzua azaldu beharko du.

   Proposamen teknikoan eskaintzen den ekipoak ez baditu betetzen BTAn adierazten diren baldintzak, lizitatzailea prozeduratik kanpo geratuko da.

3. Proposamen ekonomikoa, **III. Eranskinean** jasotzen den ereduaren arabera aurkeztuko dena.

Proposamenak ondorengo kontzeptuak jaso beharko ditu:

- Hornidurarentzat eskainitako prezioa: …….. Euro (BEZa kanpo), honela banakatua:
  a) …… euro (prezioa BEZik gabe)
  b) ……..euro (BEZa)

- Mantentze-lanen kostu osoa (9 urte): ……..…….. euro (BEZa barne), honela banakatuta:
  a) …….. euro (BEZik gabeko prezioa).
  b) …….. euro (BEZa).

3/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzekoak, dioena betetze aldera, nabarmendu behar da kontratua, mantenu zerbitzuari dagokionez, lan, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta osasun arloetan indarrean dauden arau, lege eta hitzarmenen mende dagoela.

Testuinguru horretan, Gutun-azal Bakarrean aurreikusitako dokumentazioan, gonbidatutako lizitatzaileak, esleipendun suertatuz gero kontratuaren xede den jarduera egikarituko duten langile propioei edo azpikontratatutako enpresetako langileei aplikatuko zaien hitzarmen kolektiboa adieraziko du.

Lizitatzaileak kontu handia izango du Gutun-azal Bakarrean jaso behar den dokumentazioa prestatzerakoan, adierazitako oharpenak jarraitu beharko dira.

Printzipio horiek betetzen ez dituzten eskaintzak ez dira onartuko eta prozeduratik kanpo utziko dira.

14. NEGOZIAKETA-FASEA

Epean eta modu egokian aurkeztuta izan den Gutun-azal Bakarrean jasotako dokumentazioak eskakizunak betetzen dituen aztertuko dute, ezer baino lehen, AUSAko langileek. Aurkeztutako dokumentazioan zuzenduak izan daitezkeen akatsik aurkitu ezkero lizitatzaileak hiru egun natural izango ditu horiek zuzentzeko.

Aurkeztutako eskaintzan aurkitutako akatsa zuzendu direlarik, eta lizitatzailearen nortasuna egiaztatu ostean, negoziaketa faseari hasiera emango zaio, gaia prezioa izango delarik.

Negoziaketa amaitu ondoren, lizitatzaile gonbidatuak bere behin betiko eskaintza ekonomikoa igorriko du eta AUSAko langileek egiaztatuko dute Agirian jasotzen diren eskakizun guztiak betetzen dituen. Hala bada, kontratua esleitzeari ekingo zaio.

15. KONTRATUA ESLEITZEA

Aurkeztua izan den eskaintza ikusirik, eta gonbidatua izan den lizitatzailearekin bidezko negoziaketak egin eta amaitu ondoren, AUSAko langileek espedientea aztertuko dute eta esleipen-proposamena Kontratazio-Organoari igorriko diote.

Kontratazio Organoak errekerimendua egingo dio lizitatzaileari hamar egun baliodunen barruan, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, honako dokumentazio hau aurkez dezan:

1. Lizitatzailearen nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten agiriak eta, kasua balitz, bere ordezkariarena

   - Enpresariak pertsona juridikoak badira euren jarduteko gaitasuna egiaztatuko da: eskritura edo eraketa-agiriaren bidez, euren jardueraren arauak jasotzen dituzten Estatutuak, dagokion Erregistro Publikoan inskribatuak egongo direnak.

   - Proposamenak beste baten izenean sinatzen dutenen kasuan, Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, hala nola horretarako ahalmena ematen dien agiria. Enpresa pertsona juridikoa bada, bere ahalmena Merkataritza Erregistroan egongo da inskribatua (Merkataritza-Erregistroaren Erregelamenduko 94. Artikuluan aurreikusten denean), edo bestela dagokion Erregistro Publikoan.

     Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

2. Erantzukizun-aitorpena agiri honen **IV Eranskinean** jasotzen den ereduaren arabera, non aitortzen den SPKLaren 71. Artikuluan adierazten diren debekurik ez duela lizitatzaileak.

3. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen frogagiria.

4. Agiri honen 11. klausulan jasotako behin betiko bermea eratu dela ziurtatzen duen frogagiria.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkartearen lege sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa elkartearen arduraduna edo ahalordea izendatuko da eta nahikoa botere edukiko du kontratua iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.

   OHARRA:

   Erakunde kontratatzaileak eskubidea du lizitatzaileari agiri guztiak edo batzuk aurkez ditzan eskatzeko, 1 puntuan adierazten den aitorpenaren indarraldiari

buruz edo fidagarritasunari buruz zalantzak dituenean edo prozeduraren garapen onerako behar denean.

Dena den, enpresaria inskribatuta dagoenean: Sektore Publikoaren Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean, edo Europar Batasuneko Estatu kide bateko estatuaren datu-base batean agertzen bada enpresaren espediente birtual baten gisa, agiriak biltegiratzeko sistema elektroniko gisa edo aurrekalifikazio-sistema gisa, eta horietara sartzea doan bada, ez du aurkeztu beharko leku horietan inskribaturik dauden datuen frogagiririk.

Aurkeztutako dokumentazioan topatuko balitu konpon daitezkeen akatsak, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea eman diezazkioke lizitatzaileari haiek zuzentzeko.

Adierazitako epean dokumentua aurkezteko eskakizuna ez balitz beteko edota aurkeztutako dokumentazioak akats edo ez egite konponezinak balitu, lizitatzaileak bere eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da, eta oinarrizko lizitazio-aurrekontuaren ehuneko 3 eskatuko zaio (BEZa kanpo), hala badagokio, zigor gisa, eta lizitazioa hutsik geratuko da.

Kontratazio Organoak aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo bost egun baliodunetan esleituko du kontratua; gehienez ere bi hilabeteko epea edukiko du, proposamenak irekitzen diren egunetik hasita.

Kontratazio Organoak ebazpen arrazoitu batean jasoko du esleipen erabakia, eta lizitatzaileari jakinaraziko dio, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren bidez, eta erabaki hori kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 egun naturaleko epean.

Esleipenak zehaztu eta finkatuko ditu kontratuaren behin betiko terminoak.

16. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da eta zehaztasunez egokituko da lizitazioaren baldintzetara.

Kontratuaren formalizazioa ezin izango da egin 15 lanegun igaro baino lehen, lizitatzaile gonbidatuari esleipenaren jakinarazpena bidaltzen zaionetik.

Kontratuaren formalizazioa argitaratuko da, dagokion kontratuarekin batera, gehienez hamabost egun naturaleko epean, erakunde kontratatzailearen kontratatzaile profilean.

Esleipendunari egoztekoak zaizkion kausengatik, ez balitz kontratua formalizatu adierazitako epearen barruan, oinarrizko lizitazio aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa (BEZa kanpo) eskatuko zaio zigor gisa, SPKLaren 71. artikuluko 2) atalaren b) letran

ezarritakoa alde batera utzi gabe.

17. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak kontratuaren arduraduna izendatuko du. Arduradunaren lana izango da kontratuaren gauzatzea gainbegiratzea, erakunde kontratatzaileak esleitzen dizkion eskumenen barruan.

Kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak.

18. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua jarraian adierazten diren baldintzen arabera gauzatuko da:

a) Kontratistak kontratua gauzatuko du horren termino eta baldintzen arabera, Administrazio Klausula Berezien Agiri honetan, Baldintza Teknikoen Agirian eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan jasotakoari jarraituz. Gainera, erakunde kontratatzaileak, haren interpretazioan, kontratistari ematen dizkion jarraibideak kontuan hartuko dira.

b) Kontratua lotuta dago indarrean dauden legezko, araubidezko eta konbentziozko xedapenak betetzera, aplikatzekoak direnean lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren alorrean.

   Testuinguru horretan, kuantifikatzeko judizio-balioa behar duten irizpideei buruzko dokumentazioa jasotzen duen Gutun-azal Bakarrean, lizitatzaileek, esleipendun suertatuz gero, adieraziko dute zein hitzarmen kolektibo izango zaien aplikatzekoa kontratuaren xede den jarduera betetzen duten langileei. Kontratua gauzatuko duten langileei kontratistak aplikatuko dien hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa esleipen-erabakian eta kontratugilearen profilean argitaratuko da.

   Halaber, kontratua esleitu eta gero langileei egiazki aplikatuko zaizkien lan-baldintzen inguruan eskatu zaion informazio guztia ematera behartuta egongo da kontratista.

   Kontratistak, kontratuaren gauzatze osoan zehar, aplikatzekoa den hitzarmen kolektibo sektorialaren eta langilearen kategoriaren araberako ordainsaria ordaindu beharko du. Aipatutako ordainsaria ezin da inolaz ere langileari dagokiona baino txikiagoa izan.

   Atal honetan xedatutakoak gauzatzeko baldintza bereziaren eta funtsezko betebeharraren izaera izango du SPKLaren 211.f) artikuluan jasotako ondorioetarako, eta, beraz, horiek ez betetzea kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango da, erakunde kontratugileak hala nahi badu.

c) Kontratua kontratistaren arriskuz eta ausaz gauzatuko da.

d) Horniduraren xede diren ondasunak fabrikatu, enbalatu, garraiatu, entregatu eta dagokien tokian deskargatzeko gastu guztiak, horniduraren xede diren ondasunak instalatu eta abiaraztekoak ere, kontratistaren kontura izango dira.

e) Kontratistak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango horniduraren xede diren ondasunak AUSAri entregatu aurretik sorrarazitako galeren, matxuren edo kalteen ondorioz.

f) Erakunde kontratugileak kontratu-betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar bezala gauzatzen direla kontrola, egiazta eta gainbegira dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, erakunde kontratugileak egokitzat jotzen dituen kanpo-laguntzak jasoko ditu, kontratu-betebeharrak behar den bezala betetzen direla egiaztatzeko edo auditoria egiteko, baita lanak kalitate-maila egokiarekin garatzen direla egiaztatzeko ere.

Kontratistak zerbitzuekin lotuta erakunde kontratugileak eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztuko ditu, beharrezkoa den laguntza guztia eskainiko du, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen inguruan lan, administrazio edo bestelako alorretako dokumentazioa emango du.

Kontratistak ez du oztoporik jarriko erakunde kontratugileak egiten dituen ikuskapen- eta kontrol-lanetan.

Dena dela ere, erakunde kontratugileak edozein motatako ez-betetze edo eragozpen antzemango balu, horren berri zuzenean emango zaio kontratuaren arduradunari, berori baitagokio, azken batean, hornidura egiten duten langileak antolatu eta gainbegiratzeko edo, hala badagokio, zigortzeko eskumenak.

g) Langile guztiak kontratistaren mendekoak dira. Kontratistarenak dira bere enpresa-izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak eta ezin izango zaio erakunde kontratatzaileari erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Kontratista izango da arduradun bakarra kontratua gauzatzen diharduten langileekin —langile propioekin edo noizean behin azpikontratatzen direnekin— lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). Erakunde kontratatzaileak ez du lan erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ezta Gizarte Segurantzarekin edo zerga esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrei dagokienez. Modu berean, kontratistak bere gain hartuko ditu kontratua gauzatzearen ondorioz gerta daitezkeen ezbeharrek eragindako erantzukizunak.

h) Kontratistak bete egin beharko ditu 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Araudian ezarritakori harentzat ondorioztatzen betebeharrak pertsona fisikoen babesari dagokionez, datu pertsonalen tratamenduarekin eta horien zirkulazio askearekin lotuta (aurrerantzean, DBEO). Bete egingo ditu, baita ere, datuak babesteari buruzko beste edozein arautan ezarritakoa, kontratuaren indarraldian, bere jardueren esparruan eta bere kontura eta erabakiz tratatzen dituen datuak direla-eta, tratamendu horren arduradun gisa.

i) Aldi berean, SPKLaren 202. artikuluan xedatzen denaren arabera, baldintza berezi gisa ezartzen dira hurrengoak:

- lan-arlokoa: kontratistak nahitaez bete beharko du bere eskaintzan kontratu honen xedeari dagozkion zereginak egiten dituzten langileentzat aplikagarri deklaratutako hitzarmen kolektiboa.

- ingurumen-izaerakoa: sortzen diren hondakin guztiak ingurumen-irizpideak jarraituz egitea, hiri-hondakinekin pareka daitezkeen hondakinak modu bereizian jasoko direlarik, eta arriskutsu gisa sailkatuak izan daitezkeen ontziak eta gainontzeko hondakinak modu egokian kudeatuko dira, eta fabrikazio-prozesuan energia berriztagarrien erabilera sustatuko da.

Kontratua gauzatzen parte hartzen duten azpikontratistei ere eskatuko zaie kontratua gauzatzeko baldintza berezi hori, eta kontratistari dagokio azpikontratista horiek betearazteko eta bermatzeko mekanismoak egituratzea.

19. KONTRATU-BETEBEHARRAK

Honako hauek izango dira kontratu-betebeharrak:

a) Kontratuaren betebehar nagusia da, bere klausuletan, eta agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakora hertsiki lotuta gauzatzea.

b) Karatulako 5. puntuan ezarritako entrega-, instalazio-, abiarazte- eta egiaztatze-epea betetzea..

c) Berme aldia betetzea.

d) Agiri honetako 20. klausulako indarrean dauden lege-xedapenak, araudiari lotuak eta xedapen konbentzionalak, eta laneko, Gizarte Segurantzako, eta laneko segurtasun eta osasuneko esparruetan —bigarren gidoian jasotako baldintzetan— aplikatzekoak direnak, betetzea. Testuinguru horretan, kontratistak, kontratuaren gauzatze osoan zehar, aplikatuko den hitzarmen kolektiboaren eta langilearen kategoriaren araberako ordainsaria ordaindu beharko du. Aipatu ordainsariak ezin du inolaz ere langileari dagokiona baino txikiagoa izan.

e) Kontratistak kontratuaren arduradun bat izendatu beharko du.

f) Jarduera egiteko behar diren lizentzia eta baimen guztiak lortzea.

g) Hornidura gauzatzea unean-unean aplikatzekoa den indarreko araudi sektorialean xedatutakoari jarraituz. Ondorio horietarako, bai kontratistak, bai kontratistaren pertsonalak ziurtagiri guztiak izango dituzte une bakoitzean indarrean dagoen araudiak ezarritako betebehar guztiak betetzen dituztela egiaztatzeko, hala badagokio.

h) Behin betiko bermeari eustea eta hura berritzea.

i) Kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragin ahal zaizkien kalte-galera guztiak ordaintzea.

j) Kontratua behar den bezala garatu eta betetzeko erakunde kontratugileak beharrezkotzat jotzen dituen zerbitzuak eskaintzea, ordainketa gehigarririk jasotzeko eskubiderik gabe, adibidez, laneko bileretara edo bilera informatiboetara joatea. Betebehar hori kontratua amaitu arte mantenduko da.

k) Langileak ordezkatzea, hauek eurei dagokien lana behar bezala ardura eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak eskaintzean ardura nahikoa ez badute edo kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. Erakunde kontratugileak eskaera egin eta gehienez ere hogeita lau orduko epean egingo dira ordezkapenak. Langileak ordezkatzean erakunde kontratugileak ez du erantzukizunik hartzen bere gain, kontratistak zer ikusia duten langileekin dituen harremanei dagokienez.

   Langile horiek, jardunean hasi aurretik, behar duten baimena badutela frogatu beharko dute.

Klausula honetako a), b), c) eta d) ataletan aurreikusten diren betebeharrek funtsezko kontratu betebeharren izaera izango dute SPKLaren 211.1.f) artikuluan jasotako ondorioetarako. Horiek urratzea kontratua deuseztatzeko arrazoi izan daiteke, erakunde kontratatzaileak nahi badu.

Horretaz gain, funtsezko kontratu betebeharrak izango dira 18. puntuko i) hizkian ezarritakoak.

20. DATU PERTSONALEN BABESA

20.1 DATUEN TRATAMENDUA KONTRATAZIO-PROZESUAN

Lizitazio honen baitan enpresa lizitatzaileak bere ordezkariei, langileei eta/edo hirugarrenei buruz erakunde kontratatzaileari ematen dizkion datu pertsonalak, hala nola hautatua izan den enpresak kontratua formalizatzerakoan eta/edo gauzatzerakoan emango dituen datuak, erakunde kontratatzaileak tratatuko ditu

(Tratamenduaren Arduradun gisa), kontratazio-prozesua kudeatzeko, eta kontratuaren formalizazio eta gauzatzeko helburuarekin. Guzti hori kontratazio publikoaren inguruan lege-betebeharren oinarri juridikoan oinarrituz (SPKL eta araudi osagarria eta/edo lotura duena).

Aipaturiko datu pertsonalak entitate, erakunde publiko eta/edo hirugarrenei jakinaraziko zaizkie, erakunde kontratatzaileak dituen lege-betebeharrak betetzeko (hala nola gardentasun arloan aplikagarri diren betebeharrak). Testuinguru horretan jakinarazten da, datu pertsonal horiek ematea eta entitate, erakunde publiko eta/edo hirugarrenei jakinaraztea beharrezkoa dela, eta hori egingo ez balitz enpresa lizitatzaileek ezingo lukete kontratazio-prozesuan parte hartu, ezta ere kontratua formalizatu eta gauzatu.

Hautatua gertatzen den enpresaren datuak gordeko dira kontratuaren gauzatzearen kudeaketa egiteko behar den denboran, eta enpresa honek bete behar dituen lege-betebeharrak irauten duten bitartean.

20.2 DATUEN TRATAMENDUA KONTRATUAREN GAUZATZEAREN ESPARRUAN

Kontratazio honen xede diren prestazioek ez dute izango izaera pertsonaleko datuen inolako tratamendurik erakunde kontratatzailearen aldetik.

21. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratistak AUSAri bermatu beharko dio behar adina eskubideren jabe dela honako ondorengoei dagokien jabetza intelektualaren edo industrialaren gainean: kontratazio honen xede diren hornidurak, horien diseinua eta funtzionatzeko barne hartzen edo erabiltzen dituzten prozedurak edo bestelako elementuak (*software* eta *hardware* barne). Horiek kontratistari eskubidea eman behar diote ABBAn ezarritako baldintzetan haiek hornitu, instalatu eta abiarazteko.

Era berean, kontratistak AUSAri ziurtatu behar dio modu baketsuan erabiliko dituela aparatuak eta horien elementu guztiak, AUSAri bermatuta behar adina eskubide emango dizkiola ABBAn ezarritako baldintzetan haiek erabili eta mantendu ahal izateko.

Nolanahi ere, kontratista izango da erantzulea kontratutik kanpo dauden hirugarrenek jabetza intelektualarekin edo industrialarekin lotuta aurkez ditzaketen erreklamazio guztien gainean, kontratazio honen xede diren hornidurekin, horien diseinuarekin eta funtzionatzeko barne hartzen edo erabiltzen dituzten prozedurekin edo bestelako elementuekin lotuta (*softwarea* eta *hardwarea* barne). Gainera, AUSAri ordaindu egin beharko dizkio kontzeptu horiei buruzko erreklamazioetatik etor daitezkeen kalte-galera guztiak.

22. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETUA GORDETZEKO BETEBEHARRA

Informazio publikoa eskuratzearen inguruan indarrean dagoen legerian eta SPKLan jasotako xedapenetan jasotakoa alde batera utzi gabe —esleipenaren publizitateari eta hautagai eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari dagokienez—, erakunde kontratatzaileak ezin izango du lizitatzaileek emandako informazioa, baldin eta horiek hura konfidentzialtzat adierazi badute euren eskaintza aurkezteko garaian. Konfidentzialtasunak eragina du, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialetan, eskaintzen alderdi konfidentzialetan eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informaziotan —lizita prozedura honetan nahiz ondorengo batzuetan—.

Kontratistak, bere aldetik, kontratua gauzatzeko eskuratzen eta ematen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, agirietan edo kontratuan izaera hori ematen bazaio edo berez konfidentzialtzat tratatu behar bada.

Konfidentzialtasun betebehar hori bost urtez eutsi behar zaio, informazioa ezagutzen denetik.

23. ERANTZUKIZUNA

Kontratistak izango du egiten dituen prestazioen eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen utzikeriek, akatsek edo metodo desegokiek erakunde kontratatzaileari edo hirugarren batzuei eragin diezazkieketen ondorioena ere.

Kontratistaren betebeharra da kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenen gainean eragin daitezkeen kalte eta galerengatik kalte ordainak ordaintzea.

24. ZIGORRAK

a) Berandutzearen ondoriozko zigorrak.

Kontratista, berari egoztekoak zaizkion arrazoiengatik, berandutu izanez gero agiri honetan eta/edo karatulan finkatutako epeetako edozein betetzean, erakunde kontratatzaileak aukera izan du, nahierara, kontratua deuseztatzeko —agiri honen 33. klausulako baldintzetan— edo hura gauzatzen jarraitzeko. Azken kasu horretan, erakunde kontratatzailearen alde sortuko dira bidezkoak diren kalte-ordain eta kalte-galera guztiez gainera, atzeratze-egun bakoitzeko 500 euroko zigorra.

Kontratista berandutuz gero, ez da eskaerarik beharko erakunde kontratatzailearen aldetik.

b) Kontratatutako prestazioak akatsez gauzatzearen edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzearen ondoriozko zigorrak.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak medio, kontratatutako prestazioak akatsez gauzatzen baditu edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, erakunde kontratatzaileak kontratua deuseztatzea erabaki dezake, agiri honetako 30. klausulan adierazitako baldintzen arabera, edota kontratuak gauzatzen jarraitzea erabaki dezake. Azken kasu horretan, erakunde kontratatzailearen alde, bidezkoak diren kalte-ordain eta kalte-galera guztiez gainera, atzeratze-egun bakoitzeko 500 euroko zigorra.

Kontratuaren gauzatzeak irauten duen bitartean, bertan lanean ari diren langileen ordainsariak ez badira ordaintzen edo atzerapenarekin ordaintzen badira, edo lan-hitzarmenak jasotzen dituen soldata-baldintzak betetzen ez badira, ordaindu ez diren edo atzerapenarekin ordaindu diren soldaten kopuruaren bikoitza izango den zenbatekoa ezarriko zaio zigor gisa, langileei ordaintzek obligazioa mantentzen delarik.

Kasu guztietan, aipaturiko zigorrak gehituko zaizkie egiaztatuak izan diren kalte eta galerei.

Zigorrak beteko dira, enpresa kontratistari egin behar zaion ordainketa osotik edo partzialetik kenduz, edo bermetik kenduko zaizkio, aurreko kasuan adierazitakoa egitea ezinezkoa denean. Kasu horretan, dagokion erreklamazioa jarriko da eratutako bermea gainditzen duen kopuruagatik.

Nolanahi ere, kontratua deuseztatu zein jarraitu erabaki, erakunde kontratatzaileak egokitzat jotzen duen denboran bere bitarteko propioak erabiliz edo hirugarrenen bitartez kontratuarekin jarraitzeko erabaki dezake berak bakarrik. Kasu horretan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galerak eta klausula honetan jasotako ondorioak alde batera utzi gabe.

25. KONTRATUA LAGATZEA

Ez da bidezkoa, lagatzailearen ezaugarri teknikoak izan baitira kontratua berari esleitzeko arrazoia.

26. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarren batzuekin hitzar dezake prestazioaren zati bat egitea, klausula honetan eta SPKLaren 215. artikuluan xedatutakoari lotuz, baina aurretik AUSAren baimena izan beharko du.

Kontratistak Kontratazio Organoari idatziz jakinarazi beharko dio, kontratua esleitu ondoren eta, beranduen jota hura gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa; eta adierazi beharko du prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duen,

azpikontratistaren edo horren legezko ordezkarien nortasunaz eta harremanetan jartzen datuez gainera. Halaber, behar adina justifikatu beharko du azpikontratistaren gaitasuna hura gauzatzeko, erreferentzia eginez dituen elementu teknikoei giza baliabideei eta horien esperientziari. Gainera, egiaztatu beharko du azpikontratistak ez duela kontratatzeko debekurik, SPKLaren 71. artikuluaren arabera.

Kontratista nagusiak Kontratazio Organoari idatziz jakinarazi beharko dio informazio horrek duen edozein aldaketa kontratu nagusia gauzatzean, baita azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazioa ere.

Baldin eta azpikontratistak azpikontratatuko den kontratu atala egiteko sailkapen egokia badu, kontratistak, hori jakinaraziz gero, ez du zertan haren gaitasuna justifikatu.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko, edo presazko neurriak hartu behar direlako, eta behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean baino ez dituzte betebeharrak izango, eta hark bereganatuko du, beraz, erakunde kontratatzailearekiko erantzukizun osoa, baldintza-agiriei eta kontratuaren baldintzei zorrotz lotuta gauzatzeko; barne direla SPKLaren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloko betebeharrak eta baita ere SPKLaren 202. artikuluaren 1 atalak aipatzen duen obligazioa, datu pertsonalen babeserako gaian estatuko eta Europar Batasuneko araudiari loturik egoteari buruzkoa.

Erakunde kontratatzaileak egin diren azpikontratuen berri izateak ez du eraginik izango kontratista nagusiak daukan erantzukizun esklusiboan.

Azpikontratistei eta hornitzaileei ordainduko zaie eta ordainketa horiek egiaztatuko dira SPKLaren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

27. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du SPKLaren 205. artikuluan jasotako kasuetan.

Kontratuaren aldaketak SPKLaren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

28. HARRERA ETA BERMEALDIA

Kontratua guztiz beteko du kontratistak prestazioa osorik gauzatzen duenean, betiere kontratuan adierazitako terminoetan eta erakunde kontratatzailearen adostasunarekin.

Hala ere, ekipamendua entregatu, instalatu eta BTAn adierazitako baldintza analitikoak betetzen direla egiaztatu ondoren, kromatografoa jaso eta dagokion akta egingo da. Une horretan, entitate kontratatzaileak erabakiko du hura hartzeko moduan dagoen edo ez eta ezarritako preskripzioetara egokitzen den, eta, hala badagokio, kontratistari beharrezkoak diren jarraibideak emango zaizkio hura jasotzean antzemandako akatsak zuzen ditzan edo itundutakoaren arabera beste hornidura bat egin dezan.

Kontratistari egotz dakizkiokeen akatsen ondorioz, lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, erakunde kontratatzaileak prestazioa baztertu dezake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Horretarako, 24. klausulan jasotakoa ez da alde batera utziko; nolanahi, erakunde kontratatzaileak dagozkion zigorrak eskatu ahal izango ditu, baita kalte eta galeren ordainak ere, kontratutako prestazioak akatsez eginez gero eta/edo kontratuko baldintzetako edozein betetzen ez bada.

Ekipoaren berme epea urtebetekoa izango da, ekipoa martxan jartzen denetik zenbatzen hasita, beti ere AUSAko teknikari arduradunen adostasunarekin.

Berme-epean, ekipoaren prebentziozko mantentze-lanen azterketa egin beharko da.

29. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratatzaileak kontratua eten ahal izango du, baldin eta SPKLaren 208.2 artikuluan jasotako kalte-galerak ordaintzen badizkio kontratistari.

30. KONTRATUA IRAUNGITZEA

Kontratua iraungiko da berori betetzeagatik edo ondoren arautzen denaren arabera hura deuseztatzea erabakitzeagatik.

Kontratua deuseztatzeko kausak lirateke, erakunde kontratatzailearen borondatez:

a) Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea edo kaudimengabezia deklaratzea.

b) Kontratista entrega epeetan berandutzea.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Funtsezkoak diren gainerako betebeharrak ez betetzea, baldin eta horiek halakotzat kalifikatu badira.

e) Prestazioa hasieran adostutako baldintzetan gauzatzeko ezintasuna, kontratua agiri honetan xedatutakoaren arabera aldatu ezin bada.

f) Kontratua gauzatzean, kontratistak soldatak ez ordaintzea, gauzatzean parte hartzen ari diren langileei nahiz langile horientzat aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea.

g) Oro har, kontratuko edozein betebehar ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan jasotakoaren arabera.

h) Era berean, kontratua deuseztatzeko kausa izango dira:

Hornidurari dagokionez, SPKLaren 306. artikuluan ezarritakoak —ondorio hauetarako, berariaz aplikatzekoa deklaratzen da—:

1. Hornidura hasteari uko egitea edo horniduraren hasiera etetea, erakunde kontratatzaileari egoztekoa zaion kausagatik, lau hilabetetik gorako epeaz, kontratuan entrega egiteko adierazitako datatik hasita.

2. Uko egitea hornidura gauzatzen hasi ondoren edo hornidura etetea zortzi hilabetetik gorako epeaz, erakunde kontratatzailearen erabakiz.

Mantenu zerbitzuari dagokionez, SPKLaren 313. artikuluaren 1. atalean ezarritakoak —ondorio hauetarako, haiek berariaz aplikatzekoak deklaratzen dira—:

1. Zerbitzuak ematen hasteari uko egitea edo zerbitzuaren hasiera etetea, Erakunde Kontratugileari egoztekoa zaion kausagatik, lau hilabetetik gorako epeaz, kontratuan prestazioa hasteko adierazitako datatik hasita.

2. Uko egitea zerbitzua gauzatzen hasi ondoren edo kontratua etetea zortzi hilabetetik gorako epeaz, Erakunde Kontratugilearen erabakiz.

Klausula honetan kontratua suntsiarazteko aurreikusitako kasurik badago, automatikoki deuseztatuko da. Halakoetan, erakunde kontratatzaileak hartu duen erabakia fede emanez jakinarazi behar dio kontratistari.

Jakinarazpena jaso eta gero, kontratistak erakunde kontratatzailearen esku utzi behar ditu kontratatu diren zerbitzuak eskaintzeko ordura arte landu dituen dokumentu guztiak, eta kontratua dela-eta sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa, erakunde kontratatzaileak erabilitako eta kontratistari emandako agiriekin batera. Aipatutako dokumentazio guztia erakunde kontratatzailearena izango da aurrerantzean.

Horrez gain, dagokion kontratuaren likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian adierazten denaren arabera.

Baldintza honetan jasotako arrazoiengatik edo legez egokiak diren arrazoiengatik kontratua suntsiaraztean eragiten diren erantzukizun ekonomikoak, edo legez dagozkionak, kontratua deuseztatzean eta dagokion dokumentazioa aurkeztean likidatuko dira. Horrek ez du eragotziko, ordea, erakunde kontratatzaileak hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Deuseztatze kasu guztietan, benetan egin diren onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du kontratistak, hasiera batean.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen edozein arrazoirengatik ezeztatzen bada, erakunde kontratatzailearen alde zorpetuko da, kasuan-kasuan dagozkion kalte eta galeren ondoriozko edozein ordainez gain, kontratuaren oinarrizko-aurrekontuaren %5ari dagokion zenbatekoa (BEZa kanpo). Bi kantitateak behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeke dagoen preziotik kenduko dira eta soberakinaren erreklamazioa aurkeztuko da.

Zehazki kontratua kasu hauetan baten ondorioz deuseztatzen denean:

Hornidurari dagokionez:

(i) SPKLaren 306. artikuluko a) letran ezarritakoa, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, kontratua esleitzeko prezioaren % 3ko kalte-ordaina soilik jasotzeko eskubidea izango du, BEZa kanpo;

(ii) SPKLaren 306. artikuluko b) letran ezarritakoa, kontratistak eskubidea izango du, kontzeptu guztiengatik, egin gabe utzi diren horniduren kontratua esleitzeko prezioaren % 6 jasotzeko, BEZa kanpo, mozkin industriala dela-eta. Egin gabe utzitako horniduratzat ulertuko dira honako hauen arteko aldearen ondoriozkoak: alde batetik, jatorrizko kontratuan jasotakoak eta onartutako haren aldaketak, eta, bestetik, uko egitearen edo deuseztatzearen datara arte egindakoak.

Mantenu zerbitzuari dagokionez:

(i) SPKLaren 313. artikuluaren a) letran ezarritakoa, kontzeptu guztiengatik, kontratistak kontratuaren esleipen-prezioaren % 3ko kalte-ordaina (BEZ kanpo) jasotzeko eskubidea baino ez du izango.

(ii) SPKLren 313. artikuluaren b) letran ezarritakoa, kontratistak eskubidea izango du, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 6 jasotzeko, BEZik gabe, eman ez diren zerbitzuengatik, mozkin industrial gisa. Eman gabeko zerbitzutzat joko dira jatorrizko kontratuan eta onetsitako aldaketetan jasotakoen eta atzera egitea edo etetea jakinarazten den egunera arte egin direnen arteko aldeari dagozkionak.

Azkenik, kontratua deuseztatu ahal izango da erakunde kontratatzailea eta kontratista ados jarriz gero. Halakoetan, aldeen eskubideak haiek adostutakora egokituko dira.

31. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua pribatua da eta, prestaketari eta esleipenari dagokienez, honakoek arautuko dute: Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honek, Baldintza Teknikoen Agiriak eta, esleipenari dagokionez, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri Honek; eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, SPKLTBan horri buruz ezarritako arauek (esleipen boterea duten eta herri administrazio ez diren sektore publikoko erakundeen artean arautze bateratura atxikita ez dauden kontratuetarako).

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienez, honakoek arautuko dute kontratua: Administrazio Baldintza Zehatzen Agiri honek, Baldintza Teknikoen Agiriak; eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauek. Nolanahi ere, kontratuari aplikatzekoak izango zaizkio SPKLaren 319. artikuluan ezarritako arauak "eraginei eta iraungitzeari" dagokienez.

Gainera, aplikatzekoak izango dira SPKLa eta 1098/2001 Errege Dekretua, urriaren 12koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena; agiri honetan testu arauemaile horietara jotzen duen guztian.

Nolanahi ere, kontratua Estatuko eta Europar Batasuneko araudiaren mende egongo da datu pertsonalen babesari dagokionez.

32. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa izango da eskuduna kontratuak prestatzeari, esleitzeari eta aldatzeari buruz sortzen diren auziak ebazteko; azken horien aurkaratzeak oinarri duenean SPKLaren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea, ulertzen bada aldaketa horrek beste esleipen baten xede izan behar zuela.

Hala badagokio, errekurtsoa aurkeztuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren aurrean, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera.

Jurisdikzio-ordena zibila izango da eskuduna kontratuaren ondorioei eta kontratua deuseztatzeari dagokionez, salbuetsita klausula honen lehen paragrafoan aipatutako kontratu aldaketak.

ERANSKINAK

I. eranskina. Abal eredua
(Behin betiko bermea)

[…] erakundeak (kreditu erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), IFK […] eta helbidea (jakinarazpen eta errekerimenduetarako) […](e)an dituenak, eta haren izenean […](e)k (ahaldunen izen-abizenak), dokumentu honen behealdean adierazitako ahalordea askiestetik ondorioztatzen denez egintza honetan behartzeko behar beste ahalorde duenak […] honako honi ematen dio ABALA: […] (abalatuaren izena eta abizenak edo helbide soziala), […] IFK zk., […](r)en aurrean, […] euroko zenbatekoaz, AUSAren laborategirako Q-exactive focus bereizmen handiko masa-espektrometroarekin bateragarria den kromatografo ioniko baten hornidura, instalazioa, martxan jartzea eta mantenu-kontratuaren ondoriozko betebeharrengatik erantzuteko.

Erakunde abal emaileak, bere erantzukizunpean, adierazten du Herri Administrazioen Kontratuen Legeari buruzko Araudi Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2 artikuluan adierazitako eskakizunak betetzen dituela. Abala notario aurrean sinatzen da obligaziodun nagusiarekin solidarioki, esklusio onurari espresuki uko eginda, eta […](r)en lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoa hartuta.

Abal hau indarrean egongo da […](e)k berori kitatzea edo itzultzea baimentzen duen arte.

……..(e)n, …….ko ……..aren ……(e)(a)n.

[Sinadura]

II. eranskina. Kontrataziorako Europako Dokumentu Bakarra (KEDB).

Kontratatzailearen profilean KEDB agiria eskuratu ahal izango da pdf formatuan nahiz xml artxibo moduan

III. eranskina. Formulak erabilita ebalua daitezkeen irizpideei buruzko proposamena.

[…] jaunak/andreak, […] helbidea eta […] NAN zk. dituenak, bere izenean, edo […] helbidea eta […] NAN edo IFZ dituen zk. duen […](r)en izenean eta haren ordezkari gisa, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen du, AUSAren laborategirako Q-exactive focus bereizmen handiko masa-espektrometroarekin bateragarria den kromatografo ioniko baten hornidura, instalazioa, martxan jartzea eta mantenuaren lizitazioa

ADIERAZTEN DU

Lehenik.- Konpromisoa hartzen duela , AUSAren laborategirako Q-exactive focus bereizmen handiko masa-espektrometroarekin bateragarria den kromatografo ioniko baten hornidura, instalazioa, martxan jartzea eta mantenuaren kontratazioa arautzen duten ekonomia eta administrazio baldintzen agirian eta baldintza teknikoen agirian xedatutakoaren arabera.

Bigarren.- Konpromisoa hartzen duela, AUSAren laborategirako Q-exactive focus bereizmen handiko masa-espektrometroarekin bateragarria den kromatografo ioniko baten hornitu, instalatu, martxan jarri eta mantentzeko…… **€-ko zenbatekoan (BEZa barne)**. Zenbateko hori honela banakatzen da:

- Hornidurari dagokionez eskainitako prezioa: …….. euro (BEZa barne), honela banakatuta:
    - …….. euro (BEZik gabeko prezioa).
    - …….. euro (BEZa).
- Mantentze-lanen kostu osoa (9 urte): …….. euro (BEZa barne), honela banakatuta:
    - …….. euro (BEZik gabeko prezioa).
    - …….. euro (BEZa).

Hirugarren.- Ezagutzen duela kontratua zuzentzen duen kontratuko dokumentazioa, eta berori osorik bere gain hartu eta onartutzat hartzen duela berariaz.

……..(e)n, ……..ko ……..aren ……(e)(a)n.

[Sinadura]

IV. Eranskina. Erantzukizunpeko aitorpenaren eredua

…… jaunak/andreak, …… helbidea eta …… NAN zk. dituenak, bere izenean, edo …… helbidea eta …… NAN edo IFZ dituen zk. duen ……(r)en izenean eta haren ordezkari gisa, gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoz, ezagutzen du, AUSAren laborategirako Q-exactive focus bereizmen handiko masa-espektrometroarekin bateragarria den kromatografo ioniko baten hornidura, instalazioa, martxan jartzea eta mantenuaren lizitazioa eta, honen bidez

ADIERAZTEN DU

Lehena.- Eskaintza hau aurkezten duen unean, ez duela betetzen azaroaren 8ko, 9/2017 Legearen, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituena, zeinaren bidez Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren, 2014ko otsailaren 26ko, EB/23/2014 eta EB/24/2014 Zuzentarauak ordenamendu espainiarrean sartzen diren, 71. artikuluak jasotzen dituen kontratatzeko debekuetako bakar bat ere ez.

Bigarrena.- Espresuki onartzen duela erakunde kontratatzaileak gardentasun instituzionala ematea lizitazio, esleipen eta egikaritza (esleipendun suertatuz gero) prozeduratik, eta bere amaiera arte, ondorioztatzen diren datuei.

……..(e)n, ……ko ……..aren ……(e)(a)n.

[Sinadura]